

Eskubide aitortza sinbolikoak

“Hizkuntza Gutxituen Erronkak Globalizazioaren Aroan” izeneko kongresuan, duela astebete, Bilbon, Suzzane Romaine eskoziarrak hala esan zuen: “Hizkuntzak galtzea giza eskubideen kontrako erasotzat har daiteke, pertsonak ez baitute euren hizkuntza borondatez galtzen. Hala ere, hizkuntz eskubideak giza eskubidetzat hartzeko oraindik asko dago egiteko”.

ONINTZA ENBEITA

FERNAND DE VARENNES kanadarra da, eta giza eskubideak, gutxiengo etnikoak eta gatazken konponbidea izan ditu bere lanen ardatz nagusi. Hizkuntza gutxituen gaineko deklarazioak badirela badaki, baina ez du uste balio legalik dutenik. “Hegoafrikan adibidez hamaika hizkuntza ofizial daude, baina gobernuak ingelesa baino ez du erabiltzen. Malaria kasuak zirela-eta, Hegoafrikaren iparraldean pozoia bota zutenean, informazio guztia ingelesez eman zuten. Zer gertatu zen? Gune horietan jende askok ez dakiela ingelesik eta pozoia horren ondorioak jasan beharko dituela”. Adibide horrek, eta Bilbon kontatutako beste batzuek, erakusten dute haren ustez gauza bat dela paperetan idatzita dagoena eta beste bat errealitatean gertatzen dena.

Verennes ezkorra da deklarazioekiko: “Azken urteetan hainbat deklarazio sinatu dira. Mamian denak dira politak, baina ez dira lotesleak. Sinbolikoak dira eta ez digute babesik ematen; benetan ez dute eskubiderik aitortzen”. Haren arabera, 1993ra arte ez genekien gobernu batek ezin duela galarazi herritarrek euren eremu pribatuan erabiltzen duten hizkuntza.

Romainerentzat gakoetako bat da hizkuntz eskubideak pertsona bakoitzak bere eskubidetzat hartzea. “Edozein motatako proiektuak abiatu behar genituzke hilzorian dauden hizkuntz komunitateei laguntzeko. Gobernuak ez dituzte kontuan hartzen eta giza-garapen jasangarrian parte hartzea ukatzen zaie”. Bere ikerketatik ondorioztatu izan du, bizimodua asko aldatuz gero, badirela hizkuntza galduko duten komunitateak. “Kontua da guztiok ulertu behar dugula hizkuntza guztiak mantentzea dela garrantzitsua”.



Globalizazio aroan hizkuntza gutxituek erronka berriei nola aurre egingo dieten aztertu zuten joan den astean Bilboko Euskalduna Jauregian.

Zail ikusten du hizkuntzalari eskoziarrak eskubideen artean

hizkuntz eskubideei halako garrantzia ematea. Izan ere, orain beste balore batzuetan bizi gara. Edozein ere, giza eskubideak urratzeko dagoen modurik bortitza eta eraginkorra pobrezia dela dio berak. “Garapen ekonomikorako egiten diren proiektuek ez dute kontuan hartzen egindako min kulturala, eta hezkuntzak ez du erakusten identitate kulturantzetarako biderik”. Nolabait, horretarako bidea aurkitu behar dela uste du, bitartean hizkuntz eskubideak

ARGAZKI PRESS

Aukera handiak teknologia berrietan

Hala ere, Galesen lortu dute gazteen artean hiztunak gehitzea. Delyth Prys Galesko unibertsitateko kidea da, eta azken urteetan Galesen garatutako programa oso bateko kidea da. Teknologia berriekin zerikusi zuzena dauka galeserak izandako gorakadak. "Hizkuntzaren kontseiluan lan asko egin dugu, baina 1993an sortu zen hori. Aurretik ere hizkuntzaren bidea hobetze bidean zegoen. Egia da, hala ere, kontseiluak asko lagundu duela". Prysek argi dauka galeseraren aldeko legea ez dela berebiziko baldintza izan, baina bai garrantzitsua: "Legeak galeserari boterea eman zion, eta hori oso garrantzitsua da".

Haren ustez gazteak protagonismoa hartzen ari dira munduan, eta horri eutsi behar zaio. "Internet sortu aurretik hiztegiak egitea prozesu neketsua zen, eta informazio asko galtzen genuen bidean. Hiztegia argitaratu eta oharren bat gehitu behar izanez gero, hurrengo argitalpena arte itxaron behar izaten genuen. Bidean oharrak galdu egiten ziren. Orain ez dago

"Azken urteetan hainbat deklarazio sinatu dira. Sinbolikoak dira eta ez digute babesik ematen"

Fernand de Varennes

halakorik. Ohar guztiak gorde ditzakegu momentuan edo sarean sartu edo erabili". Prysek horregatik ikusten du aukera handia teknologia berrietan.

Galesera eta Irlandako gaelikoa batzeko hiztegia egin zutenean, gazteen arteko topaketak antolatuta zituzten, eta konturatu ziren arra-

kasta handia zeukala ekimenak. Gazteei begira bideratu zuten lana, eta egun, Galesen posible da hiztegia segapoto bidez erabiltzea. Horrela, hiztegi handiak erosteko beharrik gabe, neska-mutilek galeseraz idatzi dezakete edonon. Prysek argi dauka sarean edozein hizkuntzak daukara lekua eta horri bide eman behar zaiola. Hizkuntzen etorkizuna hor dagoela uste du. Euren esperimendua ondo atera da behintzat. Orain dela hiru edo lau hamarkada, Gales eta Ingalaterraren arteko mugan, populazioaren %4k egiten zuen galesera eta egun, %10eraino iristen da hiztun kopurua.

Euskaldunok ere konturatuta gaude sarearen garrantziaz, edo bai behintzat, euskara sarean egotearen garrantziaz. Kontua da gurean gazteen artean ez direla hain onak erabilpenaren gaineko datuak. Luistxo Fernandezek eman zituen euskarak sarean dituen erabiltzaileen inguruko zenbait datu. Gauza bi bereiztu zituen hemen: alde batetik sarean euskarazko orrietan sartzen direnak, eta bestetik euskarazko orrietan sartu arren, nabigatzailearen konfigurazioa euskaraz dutenak. Euskarazko orrialdeetan igeri ibiltzen direnen artean, %14k baino ez dauka konfigurazio osoa euskaraz. Fernandezek irudiko, "nabigatzailearen hizkuntza-konfigurazioa da Interneten dagoen hizkuntzaren neurgailu nagusia. Eta gure kasuan, Google bagoaz gure bisitaren hizkuntza gaztelaniaren alorrera gehitzen da. Nahiz eta gu sartu garen orria euskara hutsean egon idatzita". Beraz, garrantzitsua da jakitea ez dela berdina nabigatzailearen hizkuntza eta zuk pantailan ikusten duzuna, zelanbait esateko.

Sustatu.com-ek egin zuen kanpaina: "Nabigatzailea espainolez konfiguraturuta daukazu" mezua agertzen zitzaien hala zeukatenei, eta Fernandezek dio %32 hazi dela euskarazko konfigurazioa. Ez omen da zaila konfigurazioa euskaraz jartzea, eta sarean euskarak badu lekua. Hori bai, euskaldunek ematen dioguna, ez gehiago ez gutxiago. ■



behin eta berriro zapaltzen zaizkielako hainbat herriri.

Uste du estatuek sozio-ekonomiaz baino ez dutela berba egin gura eta ez autodeterminazioaz. "Autodeterminazioa indigenen ardura delako ustea dago zabaldua. Baina kontua ez da giza eskubideekin lotuta daudelako egon behar dutela hizkuntza eskubideek ere bermatuta. Kontua da hizkuntza eskubideak oso garrantzitsuak direla eta autodeterminazio eskubideak lagunduko duela horiek garatzen", gaineratu du Romainek.

Panoramari buelta ematea hizkuntza gutxituetako hiztunen eskuetan dago azkenean. Verennedek argi esan du hizkuntza bat aukeratzeko orduan, aukerak ematen dituen hautatzen duela jendeak: lanerako balio duena, estatusa emango diona... "euskaldunok ziur al zaude, hemen, euskara dela aukerak eskaintzen dituen hizkuntza?", galdetu du. Inork ez du erantzuten jakin, baina kongresuko partaide gehienek izango zuten nonbait erantzuna gordeta. Izan ere, gaztelania edo frantsesa bakarrik jakinda, ez da inor txarto bizi Euskal Herrian.